Astekaria

elgoi BARREN

1996ko urriaren 4a / 166. zkia.



## KILOMETROAK 96

# Elgoibarren, bai horixe!

BURGER PILON

Ogi egin berria eguneko edozein ordutan!

HANBURGESAK

BOKATAK

SANDWICHAK

P. Muguruza, 5 - Tel. 74 44 35 - ELGOIBAR

**elgoiBARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.
ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi.
KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.
PUBLIZITATEA:
Myriam Aldazabal.
MAKETATZAILEA:
Maite Rementeria.
ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.
BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
TIRADA: 18.000 ale
LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X

**elgoiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

kutxa fundazioa
fundación kutxa

## ZENBAT BURU

### HAINBAT ABURU



# Kilometroz Kilometro

Hemen da, azkenean, KILOMETROen eguna. Eta sail honetan idazten duten 15 lagunetik neuri oportunatu behar aste honetako artikulua idaztea. Ez zait erraza gai hau jorratzea. Baina doazela hasieratik nere desiorik onenak.

Egia esan ez dut parterik hartu aurtengo Kilometroetako langintzan. Ikastolen publifikazio eztabaida garaian neure erabakia hartu nuen eta azken urteetan Elgoibarko Ikastolan izandako hainbat gauzarekin ez nator bat. Ez ideologikoki, ez sindikalki eta, beharbada, ezta etikoki ere.

Nere helburua, dena dela, ez da zauriak berriz urratzea. Ezta inor konbentzitzen saiatzea ere. Bakoitzak jakingo du Euskal Eskola Publikoak berarentzat zer izan behar duen eta zein ikastetxe dagoen barne eta zein kanpo sare publikoan.

Beste zerbait nahiago dut denontzako erreflexio gai. Hainbat urtetan Eibarko J.A. Mogel ikastolan lan egin ondoren, eratu berria den D.B.H.rako (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) Elgoibarko Herri Institutuan plaza hartu nuela herrian zabaldu zenean entzundako zerbait:

"Koño, orain enemigoan hago". Hain zuzen. Serio esandako esaldi bat izan zenik ez dut pentsatzen, baina bai gaur egun herrian eta ikastetxeen artean dagoen zerbaiten adierazgarri.

Zerbaiten arduradunak eztabaidan hasten direnean, eztabaida hori haserrea bihurtzen da askotan arduradun horien menpe daudenen artean. Eta goikoak lasai mahai baten inguruan bazkaltzen!

Ez gaitezen astazakilak izan!

Matrikula, zerbitzu eta prestigio gerra baten sartuak gaudela dirudi sarritan. Gerra gehienak bezala, hau ere ez da batere onuragarria. Are gehiago, gerra honetan gure herriko haur eta gazteen HEZIKETA (formakuntza akademikoa baino zerbait gehiago) eta geroa jokoan daudenean.

Herritar orok kontuan izan behar du honelako jokaerek beti izaten dutela bere erreflejoa. HEZIKETA, hainbat aldiz aipatzen den "Eskola talde"an edo "Comunidad escolar"ean datza eta herri bateko Eskola talde hau denok osatzen dugu: ikasleek, irakasleek, gurasoek, erakundeek eta, azken muturreraino iritsiz, herri osoak.

J.A. Artzek aspaldi zioen bezala: "... Ez dugula ikusi. Ez dugula ikasi. Ez da nonbait aski. Gibeletik eman digutela, nork ez daki ematen ari zaizkigula, ... etsaia sotoan eta gu, astazakilok, atzeko atea histen harrapatzen gaituzte beti... ikusiko ote dugu noizpait? noizpait ikasiko?".

Kilometro asko falta ote dira ikusteko eta ikasteko? Elkarbizitzan ere kilometroz kilometro!

**Xabier Ansola**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria*

ELGOIBAR 650. URTEURRENA



Kilometroei eskainitako ale berezi honetako erretratu zaharra Elgoibarko Ikastolaren 25. urteurreneko liburutik hartutakoa da. Ikastolako lehen maisu-maistren erretratu hau 1973koa da. Parrokiako arkupeetan daude irakasleak, orduan elizako lokaletan baitzeuden ikastolako gelak. Ikus dezagun zein diren goian azaltzen diren irakasleak:

Ezkerretik hasita: **Nekane Zubiaurre, Mari Kruz Ugarte, Antton Aranburu, Maria Isabel Mujika, Nekane Iturbe, Jone Etxabe, Itziar Ajuria, M. Antonia Albizu, Alfonso Guilló, Edurne Lasa, Arantza Berasategi, Txomin Urdanpilleta, Karmele Albizu, Mari Juli Konde, Regina Arrieta** eta **Jone Ajuria.**

Gure herria,
gure hizkuntza,
gure kafea.
Aitona kafea.

CAFES AITONA

Biltegia eta
tostaderoa:
26 Poligonoa
Astigarraga Auzoa
Tel. 55 08 98 - 55 79

Bulegoa:
Ametzagaña, 17
Tel. 27 96 27
DONOSTIA

# Zein plan duzu Kilometroen egunerako?



**ANA GARCIA**
**48 urte, etxekoandrea**

Zirkuituan piska bat ibili eta egun osoan hortik zehar. Seme-alabek laguntzeko asmoa dutela uste dut baina gu ondo pasatzera joango gara.



**ANER ZIPITRIA**
**21 urte, ikaslea**

Nik lana ein bihar dot, txozna batian edo. Holako egunetan jende asko etortzen danez, lan haundixa eongo da eta horregatik lagundu ein bihar da.



**MARI JOSE RODRIGUEZ**
**43 urte, etxekoandrea**

Jaigunean bertan bizi naizenez dena ikusteko aukera izango dut. Lehen aldiz ezagutuko dut Kilometroen jaia eta bueltatxo bat ere emango dut giroa ikusteko.



**IBON GURUTZETA**
**21 urte, sukaldaria**

Juergia ein. Egun guztia kalian eta ahal bada astebukaera guztia. Gorputza segun zelan dauan rekorridua eingo dot, kontzertuak ikusteko behintzat.



**NEREA PEREZ**
**28 urte, etxekoandrea**

Umiakin buelta bat eman eta ikusi ze anbiente dauan, zirkuituan ibili... Aspertzen geranian Debara edo beste nunbaitxera jungo gera.



**IMANOL GALLEGO**
**13 urte, ikaslea**

Ez daukat planik eginda baina jaia ikusteko jungo naiz. Lagunekin gauzak ikusi eta antolatzen diazen gauzetan, kontzertuak, kirola... parte hartu.




# San Bartolome Ikastola
# 34 urteko historia

**Elgoibarko ikastola berria, gaur egun Ermuaranbiden dagoena, 1976an eraiki zen arren, 1962 aldera hasi ziren lehen urratsak. Urte asko pasa dira ordutik, 34 hain justu. Eta gaurkoa egun aproposa da historian atzera egin eta nondik norakoen berri jasotzeko.**



1962. urtea. Itziar Ajuria andereñoa eta Ikastolako lehenengo taldea.

**1939**ko gerratearen ondoren euskararen egoera oso kaskarra zen. Debekatua zegoen hitzegitea, eskolan haurrek gaztelania baino ez zuten ikasten eta, poliki-poliki, euskara zenbait etxetako sukaldeetara mugatzen hasi zen.

1950. urte aldera Euskal Herrian zehar hainbat antzeztalde sortzen hasi eta han-hemenka jaialdiak ospatzen hasi ziren. Baita Elgoibarren ere. Kontestu horretan sortu ziren gau eskolak ere. Bi apaizek euskara klaseak ematen zituzten Umandi izeneko metodoa erabiliz. Hasieran jende dexente hurreratu bazen ere, denborak aurrera egin ahala saiakera honek porrot egin zuen. Bitartean, Falangeko eta elizak utzitako lokaletan Lourdes Alberdi, Miren Vallejo, Jesus Larrañaga eta Felix Etxeberriak neska-mutikoei euskara irakasten zien Xabiertxo eta Boga-boga liburuak erabiliz.

### Ongarritik Elgoibarko Izarrara

Gauzak mugitzen hasi ziren. Talde bat elkartu eta Ongarri sortu zuten, euskal kulturaren alde lan egin asmoz. Dantza taldea martxan jarri, mendira irteerak egiten zituzten... Hori guztia euskararen alde baina gaztelania hutsez. Horregatik, 1964. urtean Elgoibarko Izarra sortu zen, Ongarrik bezala, honek ere euskal kultura bultzatzea zuen helburu baina oraingoan euskara erabiliz. Berehala lortu zituen 1.400 bazkide.

Donostia eta Hernani aldetik Ikastola izena iristen hasi zen. Aro berri baten lehen haizeak. Zenbait elgoibartarrek Carlos Santamaria eta Juan Goiarekin hitzegin zuten eta 1962ko maiatzaren 2an Itziar Ajuriak 29 ume txikirekin martxan jarri zuen ikastolaren lehen esperientzia.

### Lehen pausoak

Ikastola Elgoibarko Izarrak Loriton zuen lokalean kokatu zen. Baina, garai haietan gobernadore zibilak edozein momentutan bidal zezakeen ixteko agindua eta elkarteak Gure Kai S.A. sortu zuen. Ikastolak egunez







funtzionatzen zuen baina baimenik gabe. Gero eta ikasle eta irakasle gehiago zegoen, legeek gogor jarraitzen zuten. Horrela bada, elizak bere babesean hartu zituen ikastolak.

### Escuela Parroquial San Bartolome

1970ean iritsi zen baimen ofiziala eta ikastolak Catequesis Parroquial, Escuela Parroquial San Bartolome izena hartu zuen. Urte haietan sortu zen Gipuzkoako Ikastolen Elkartea. 54 ikastola batzen zituen eta 7.000 ikasle. Helburua, ikastolei eraginkortasuna eta seriotasuna emanez izen ona lortzen laguntzea zen. Honekin guztiarekin batera ikastolen inguruan bestelako ekintzak martxan jarri ziren, besteak beste, gurasoen alfabetatzea, euskal dantza, txistulari eskola, txalaparta, solfeoa, ingelesa, balleta...

1970. ean Hezkuntzaren Liburu Zuria deitu zena sortu zen eta 14 urtera arte haurrak eskolara joan zitezkeen. Baina, Elgoibarren arazo bat sortu zen: lokal falta. Izan ere, lege berriak baldintza bat jartzen zuen, itxurazko lokala izatea, egoera onean egotea.

Legeztapenaren sasoian Ikastolako dirua bazkideen kuotetatik ezezik, Udala, aurrezki kutxa, banketxeeta kooperatibetatik ere jasotzen zen. Ikastola legeztatu arte legea zen beldurra. Legeztatzea lortu zuenean, berriz, prestigioa. Testuak urriak





Goian Ikastola berriaren eraikuntza, 1975. urte aldera. Beheko argazkian, San Bartolome Ikastola gaur egun.

## San Bartolome Ikastola gaur egun

**IKASKETAK:**
- Haur Hezkuntza, 2 urtetik 6 urtera.
- Lehen Hezkuntza, 6 urtetik 12ra.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 12 urtetik 16ra.
- Batxilergoa (BBB)

**IKASLE KOPURUA:** 530.
**IRAKASLE KOPURUA:** 39.
**IZAERA:** Guraso eta irakaslez osaturiko kooperatiba.

ziren, ikasleak gero eta ugariagoak eta gurasoak ere parte hartzen hasi ziren funtzionamenduaren gestioan. 1973. urtean Aubixa martxan jarri zen ikasleentzat udaleku modura euskal giroa izan zezaten.

### Ikastola berria

Urte berean, 1973.ean hain justu, erabaki garrantzitsua hartzen da: Ikastola berria eraikitzea. Horretarako, Ikastolak kooperatiba egitura aukeratu zuen bere funtzionamendua erabat autonomoa izan zedin, Elgoibarko Izarratik kanpo. Gure Kai desegin eta Pedro Migel Urruzuno kooperatiba sortu zen. 1974an Hezkuntza ministeritzatik OHOko 8. mailara arte irakasteko baimena iritsi zen ikastola berria egiteko. Proiektua Luis Ulacia arkitektuak egin zuen. Ikastola eraikitzeko Danobatek 3.000 m2 eman zizkion eta beste 10.000 m2 erosi ziren 8 milioi pta.ren truke. Kopuru horretatik 6 milioi herritarrek eman zuten eta gainontzekoa aurrezki kutxek eta erbesteko elgoibartarrek. Ikastola berria 1976ko ekainaren 26an inauguratu zen. Urte berean guraso eta irakasleen kooperatiba Elgoibarko Izarratik bereizi eta Pedro Migel Urruzuno kooperatiba sortu zuten guraso eta irakasleek. 1979. ean lege aurrean, Escuela Parroquial zena, Colegio San Bartolome izatera pasa zen, eta 1986. ean hartu zuen San Bartolome Ikastola izena.

Ikastola martxan zegoen. Hasierako helburuak, lehen urratsak gauzatu ziren. Eta 1982an kirol instalakuntza egin zen, guztira 90 milioiko aurrekontua izan zuelarik.

1990. ean San Bartolome ikastolak ikasleentzat jangela zabaldu zuen. 1993an, berriz, Argitxo irratia.

### Eusko Jaurlaritzaren legea

1993an Eusko Jaurlaritzak lege berri bat jarri zuen martxan. Horren ondorioz, ikastolek aukera egin behar zuten: pribatu gisa jarraitu ala publikoan sartu. Elgoibarko ikastolak sare pribatuan geratzea erabaki zuen.








**Xabat Molina,** 12 urteko elgoibartarra, Ingurugiroari buruzko Lehiaketan irabazle izan da Deba Beheko eskualdean. Xabatek ingurugiro eta ekologiarekin lotutako marrazkia egin zuen eta honi esker, diploma eskuratzeaz gain, fase estatalerako sailkatzea lortu du. Zorionak!

## Okindegiak zabalik

Domekan, hilak 6, ez da ohiko ogi turnorik egongo, herriko okindegi guztiak irekita egongo direlako. Egun honetan, milaka ogi barra salduko direnez, okindegi guztietan egingo dute ogia. Ikastolakoek bakarrik 18.000 barra enkargatu dituzte eta hauei tabernek beharko dituztenak gehitu behar zaizkie.

## Kiroldegiko ordutegia

Udal Kirol Patronatuak Kiroldegiko ordutegia zabaltzea erabaki du urritik hasita. Astelehenetik ostiralera bitartean Kiroldegiko instalazioak goizeko 8etatik eguerdiko 2etara egongo dira irekita eta arratsaldeko 3etatik 9ak arte. Zapatuetako ordutegia honako hau izango da: goizez 8etatik 2ak arte eta 4etatik 9,30etara bitartean eta igande eta jaiegunetan 10etatik 2ak arte. Bazkide kanpainak martxan jarraitzen du eta argibiderik behar duenak edo/eta izena eman 74 44 15 zenbakira dei dezake.

# Zazpi faisaia ehizatu zituen San Migelen Patxi Arriola txapeldunak



Herri mailako ehiza txikiko txapelketa jokatu zen pasa den zapatu goizetik eguerdiko 1,30ak arte San Migeleko Mendibeltzuko inguruetan. La Unión ehiza eta arrantza elkarteak 60 faisaia askatu zituen eta parte hartu zuten 19 ehiztariek 27 ale jo zituzten. Hauetatik zazpi Patxi Arriola Espainiako oilagorren txapeldunak hil zituen. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, ale gehienak 12ak inguruan harrapatu ziren, eguraldi eguzkitsua egin bazuen ere, behe lainoa ez baitzen eguerdi partera arte desagertu. Ehiztariez gain, azeri ugari ibili zela ere komentatu ziguten La unión-ekoek.

Hurrengo txapelketa, bihar, hilak 5, izango da Elgetan, zonako txapelketa hain zuzen. Patxi Arriolak eta Javier Uzuriagak ez dute parte hartuko txapelketa honetan. Hortaz, San Migelen sailkatu ziren hurrengo hirurek izango dute Elgetan egoteko aukera.

| IZENA | ale kopurua |
|---|---|
| 1- Patxi Arriola | 7 |
| 2- Javier Uzuriaga | 4 |
| 3- Manuel del Pozo | 3 |
| 4- David Conde | 3 |
| 5- Imanol Urbieta | 2 |



**Rodriguez anai-arrebak** izan ziren Karakate elkartearen eskutik joan den domekan burutu zen perretxiko lehiaketako irabazleak. Iaz baino perretxiko gutxiago ikusi ziren Plaza Handian, hala ere, barietate handia zegoen. Argazkian saria eta diploma jaso zuten neska-mutilak agertzen dira.

# %4,30a igoko dira ordenantza fiskalak

Hala erabaki zen joan den asteko Udal plenoan. EAJ, EA eta PSE-EEk aurkeztutako proposamenak aurrera egin zuen. EAJko zinegotzia den Isaak Loiolak azaldu zuenez, "ezinbestekoa da IPCa gehitzea baldin eta orain arteko maila mantendu nahi badugu prestakuntza eta zerbitzuei dagokionean".

HBk ordenantza gehienen aurka botatu zuen. Pello Mendizabalek esan zuenez, "azken 6 urteotan elgoibartarrek 160 milioi pta. gehiago ordaindu dute zergen bidez. Guk, zergak izoztea proposatzen dugu".

IUko ordezkaria, Juan Ignacio Ausin, uraren zergaren aurka azaldu zen, "herritarrok kontsumitzen duguna baino 17 pta. gehiago ordaintzen dugu. Herritarrek zer ordaintzen duten jakin behar dute".

### Galindo

IU-EBak, argazkian Juan Ignacio Ausin zinegotzia, Galindo "persona non grata" izendatzeko emendakina aurkeztu zuen. EAJ-PNV, PSE eta PPren kontrako botuekin atzera bota zen. Halere, Galindoren askatasunaren eta Cesid-eko papelen deskalifikazioaren aurka azaldu ziren eta emendakina Galindori berari eta Audientzia Nazionalera bidaltzea erabaki zen.

### HB eta Udal Manifestua

Plenoaren hasieran "Manifestua errepresioa" zioen kartela zabaldu zuten HBren izenean. Horrekin lotuta, galderen atalean, HBko kide den Juan Karlos Markos-ek, biolentziaren aurkako manifestuaren inguruan egindakoaz galdetu zion, portaletan jartzeak, horretarako udaltzainak bidaltzea eta abar legala den galdetuz. Gillermo Garatek baietz erantzun zuen eta ea HBk ere aipatu manifestua sinatu nahi zuen galdetu zien. Pello Mendizabalek hartu zuen hitza jarraian "baldin eta Udal demokratikoa bada hau, lehenengo alderdi guztiek hitzegin eta eztabaidatu behar dute eta gero erabakiak hartu. Kasu honetan HBri ez zitzaion deitu".








**San Migel auzoan** amaitu dira jaiak, umore onean eta eguraldi ezin hobearekin gainera. Dantza ikuskizunak, bolo jokaldiak, idi-demak eta bestelako ekintzak ere izan dituzte txiki eta nagusien gozamenerako. Jaiaen bukaeran egin zen txekorraren zozketan 05743 zenbakia atera zen saritua. 15 egunen buruan jabea agertuko ez balitz erreserbako zenbakia, hots, 01385, izango da saria jasoko duena. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie txartelak erosi zituzten guztiei, "gainontzean, era honetako jaiak antolatzea ezinezkoa izango bailitzake."

## 10.963 pertsona daude Elgoibarko erroldan

1996 urteko azken datuen arabera, 10.963 pertsona bizi gara Elgoibarren. Horietatik 5.459 gizonezkoak dira eta 5504 emakumezkoak. Kontuan izanik iaz 11.204ko biztanlegoa zela, urtebetean 241 pertsona galdu ditu Elgoibarrek.

## Mendi irteera

Morkaiko Mendizale Elkarteak Etxegarate eta Lizarrusti bitarteko mendi irteera antolatu du datorren larunbaterako, hilak 12. Irteera goizeko 7,30etan izango da Plaza Handitik. Joan nahi duenak ostiral arratsaldean eman dezake izena arratsaldeko 7,30etatik 9etara bitartean 74 02 97ra deituta.

# Beder eta Sei:

## “Datorren urteko maskotak izatia nahiko genuke”

**Beder eta Sei edo Ilenia Ibarluzea eta Mikel Galarza. Zazpina urte dituzte eta Kilometroak-eko maskotak dira. Urte osoan zehar hara eta hona ibili dira Kilometroak-eko ekintza guztietan present. Beder eta Seiren papera betetzen ondo baino hobeto pasatu dutela esan digute eta datorren urteko Kilometroak-eko maskotak zein izango diren galdetu diegunean zalantzarik gabe erantzun digute: “guuu!!!!”. Adi, beraz, Kilometroak 97ko antolatzaileak. Hemen dituzue datorren urterako bi boluntario.**

**- Andereñoak aukeratu al zintuzten Beder eta Sei izateko?**

- I: Bai, andereño Edurnek. Ni Beder izango nitzala eta Mikel, Sei.

**- Zergatik? Guapoenak zinetelako?**

- M: Ez, mutila eta neskia ginalako.

- I: Eta zela nobixuak ginala esan ziogun...

**- Eta pozik Beder eta Sei aukeratu zintuztetelako?**

- M: Bai, nire arrebak 11 urte dakaz eta enbirixia zakan ni Sei nitzalako.

**- Beder eta Sei bezala zaudetenean, zergatik egoten zarete hain serio?, badirudi lotsatu egiten zaretela.**

- M: Lotsatu? keba! Guk ez daukagu lotsarik. Formal egoteko esan ziguten eta hola egoten gera.

**- Traba egiten al dizue zenbakiak aurpegian?**

- I: Neri ez. Berua ematen dia piska bat.

- M: Hasieran bai baina oin ez dia molestatzen. Ipintzen jataz mofletiak gorri-gorrixak.

**- Patinetan ibiltzen ere ikasi behar izan duzue.**

- M: Nik banakixan, lau urtekin ikasi naban. Eta Ileniak ez zakixan oso ondo.

**- Egia al da hori, Ilenia?**

- I: Gezurra da!

**- Eta hankapaluetan?**



**“Ez gera lotsatixak. Formal egoteko esan ziguten eta hola egoten gera gu”**

- I: Nik Mikelek baino lehenao ikasi naban.

- M: Baina oin nik hobeto dakitx. Eske hasieran Ilenia bizkor-bizkor ibiltzen zan eta egun batian labaindu eta jausi ein nitzan.

**- Baina hainbeste tira eta bira... ondo konpontzen al zarete zuek biok?**

- M: Baaaai!!

**- Nork egiten ditu gaiztakeria gehiago?**

- M: Nik. Lehen Ilenia nere gelan zebilen baina zelan billurra ematen nion beste gelara jun zan. Eta amatxori ipurdixan hatxumurka eitxen diot. Baina nesketetik Ilenia da txarrena.

**- Goenkalekoak ere ezagutu dituzue. Telebistan bezain guapoak al dira?**

- I: Bai, neretzako danak dia guapuak.

- M: Ba, neretzako ez. Batzuk bai, baina beste batzuek zatar-zatarrak!

**- Ikusten duzue Goenkale telebistan?**

- M: Bai, baina ez jata gustatzen. Beste egunian ikusi naban eta Maria Luisa hil eingo da medikuan daualako eta badakizu zein dan hiltzailia? Gaizka!

**- Orduan gustatzen zaizue?**

- I: Neri ez. Neri Atori Ninja gustatzen jata.

- M: Eta nik Songoku ikusten dot. Baina batzuetan ikusten dot Goenkale.

**- Zer iruditu zitzaizuen Indurain?**

- I: Guapua.

- M: Eta bere umia ere bai.

**- Eta haundiak egiten zaretenean zer nahi duzue izan?**

- I: Nik pastelera, pastel eta tarta asko eitxeko.

- M: Nik pistinian delfinakin ibiltzia.

**- Zein ekitalditan pasatu duzue hobetoen?**

- I: Hankapaluetan.

**- Eta aspertu?**

- M: Gauzak hasteko itxoin bihar zanian.

**- Penarik Beder eta Sei izateari utzi behar diozuelako?**

- I: Bai, ze horrela ezin dogu hankapaluetan ibili gehixo.

**- Datorren urtean orduan, berriz maskota izan nahi?**

- M: Bai, gu izango gera, ze neri asko gustatzen jata maskota izatia.

- I: Nik ere datorren urtian maskota izan nahi dot!

# 2.500 pertsona elkarlanean



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza jarri nahi eta horretarako inbertsio handia egin behar denez, San Bartolome Ikastolak 1996ko Kilometroak Elgoibarren egiteko eskaera luzatu zuen. Egoera ekonomikoa aztertu ondoren eta hemen Kilometroak sekula ospatu gabe zegoela kontuan izanik, Elgoibarri eskaini zitzaion 1996ko Kilometroak-en antolaketa. Baietza jakin bezain pronto lehenengo urratsa lantaldeak osatzea izan zen. Eta horrekin batera argazkian ikusten den batzorde iraunkorra.

Hortik aurrera ia urtebeteko lana zegoen urriaren 6ra bitartean gauza guztiak ahalik eta hobekien antolatzeko. Batzorde Iraunkor bat eratu eta koordinatzaile bat izendatu zen, Mari Jose Ulazia.

Zortzi lan-talde eratu ziren hasiera-hasieratik. Bakoitzari lan konkretu baten ardura egokitu zitzaion: publizitatea, salmenta, kultura, ekonomia, muntaia, tabernak, trafikoa eta ibilbidea. Batezbeste, talde bakoitzean 10 lagun aritu dira lanean urtean zehar, astero-astero elkartu eta gauzen nondik norakoak zehazten. Lan-talde bakoitzeko lehendakari bat izendatu zen. Horiek guztiek, koordinatzaileak, laguntzaileak, Ikastolako ordezkariak, Ikastolako lehendakariak, GIEko (Gipuzkoako Ikastolen Elkartea) ordezkariak eta Elgoibarko alkateak osatzen zuten Batzorde Iraunkorra. Batzorde hau astelehenero Ikastolan elkartzen zen talde bakoitzean hitzegindakoa guztien artean eztabaidatu eta erabakiak hartzeko.

### Aurreko esperientziak

100.000 lagun inguru elkartzen diren egun baterako antolakuntza lanak ez dira, ez, aise eta erraz egiten. Horregatik, ezinbestekoa da aurreko urteetan Kilometroak antolatu dutenen esperientzia jasotzea. Hori dela eta, urtero,









Joan den larunbatean hasi zituzten muntaketa lanak.

aurreko urteko antolatzaileekin bilera egiten da haiek izan dituzten akatsak zuzentzeko eta ondo egindakoak errepikatu edo bide beretik joateko. Dena dela, Mari Jose Ulaziak koordinatzaileak esan digunez, "kontuan izan behar da toki bakoitzak bere berezitasunak dituela eta iaz Donostian izan zen eta Donostia hiriburu bat da. Horregatik, guk batez ere Legazpira jo dugu. Orain bi urte izan zen Kilometroak bertan".

### Trafiko arazoak

Komisio bakoitzak atal konkretu batez arduratu behar izan du. Kultur ikuskizun eta ekitaldi guztiak Kultura Taldeak antolatu ditu; publizitate lanetan ibili dira beste batzuk, ekonomia, tabernak, ibilbidea... Guztiek beren lana eta ardura izan badute ere, Mari Joseren hitzetan, "ikusita herria non kokatuta dagoen eta zein inguru daukan, lanik gehien trafikoak eman digu". Elgoibarren bi aparkaleku nagusi izango dira: Olaso eta Lagun. Horrez gain, Eibarren ere 2.000 aparkaleku egokitu dira eta orduerdiro autobusak izango dira Elgoibarreraino.

## ZENBAIT DATU

**TRAFIKOA**
- **Eusko Tren**
- Donostiatik orduero
- Bilbotik sei tren
- Durongotik orduero
- Ermutik 20 minutuero
- **Aparkalekuak**
- 7.000 Elgoibarren
- 2.000 Eibarren

**IBILBIDEA**
8 km.

**GUNEAK**
- **5 atseden gune:**
- San Roke
- Mintxeta
- Albitxuri
- Alkorta
- Ikastola
- **Guztira:** 81.500 m2

**GARBITASUNA**
- 500 zakarrontzi
- 20 beira kontenedore

**OSASUNA**
- Gune guztietan sorospen postuak
- 9 anbulantzia

**ELBARRITUAK**
- Aparkaleku bereziak
- Garraioa Gurutze Gorriaren eskutik
- 4 km.ko ibilbide berezia

**ZERBITZUAK**
- 5 iturri jarriko dira

**ANTOLAKETA**
- 8 talde edo batzorde
- 2.500 pertsona lanean egunean bertan
- Salmenta: 150
- Tabernak: 1200
- Trafikoa: 400
- Kultura eta kirola: 150

### Ibilbidea

8 km.ko ibilbidea da aurtengoa. Ikastolan hasi eta hortik aurrera, besteak beste, IMH, Erretxindi, San Roke, Lapramendi, Sanson Etxeberri eta Mintxeta baserriak, Alkorta tailerra, Doimak, Upaitza Goikoa eta Behekoa eta Albitxuri zeharkatzen ditu. "Kanpoko jendeak duen Elgoibarko irudia kale luze batena da. Horregatik, inguru politak ezagutarazteko aukera aprobetxatu behar genuela pentsatu genuen, baserri inguruan. Toki asko eta asko herritarrentzat ere ezezagunak izango dira".

### 5 gune

Ikastola, San Roke, Mintxeta, Alkorta eta Albitxuri dira bost guneak. Horietako bakoitza gauza konkretuetarako egokitu da. Esaterako, Mintxetan kirola izango da nagusi, Alkortan rock kontzertuak, Ikastolan bazkariak eta pilota partiduak... Horrez gain, taberna bat baino gehiago dago gune bakoitzean, ikuskizunak etengabe toki guztietan....

Datu kuriosorik ere badago. Elgoibarko okindegi guztien artean 18.000 ogi barra egingo dituzte Kilometroak-eko antolatzaileek eskatuta. Ardoari dagokionean, berriz, 6.000 botila, ura, 2.500 botila haundi eta 16.000 txiki...







### 2.500 pertsona lanean

Urtean zehar batzordeetan lanean egon direnez gain, egunean bertan 2.500 pertsonaren laguntza ezinbestekoa da gauzak ondo ateratzea nahi baldin bada. Horretarako, lehenik eta behin ikasleen gurasoengana jo zuen Batzorde Iraunkorrak laguntza eske. Gero, ikasle ohi guztiei eskutitz bana bidali zitzaien gauza bera eginaz eta taldeak antolatu dira txandaka. 150 pertsona salmentan arituko dira, 1.200 tabernatan, 400 trafikoan, 150 kirol eta kultur ekin-tzak koordinatzen, 250 ibilbidean zehar garbiketa eta segurtasun lanetan, 100 muntaketan, 50 seinalizazioak prestatzen, 50 barne komunikaziorako, 60 osasun zerbitzuan eta 90 koordinazio eta argibideak emateko.

### Berezitasunak

Aurreko edizo gehienetan, Kilometroak-en inguruko ekitaldi guztiak eguna baino 15 egun lehenago zentratu izan dira batez ere. Elgoibarren, aldiz, nahiago izan dute urte osoan zehar banatu eta 1996ari ikutu berezia ematea. Horrez gain, abestien bilduma ere orain arte inork egin gabeko zerbait izan da, “kantu zaharrak jaso ditugu liburuska batean eta bakoitzaren akordeak jarri, kitarraz kantatu ahal izateko”. Diskari dagokionean, Mari Josek azaldu digunez, “normalean abestia bakarrik ateratzen da baina Elgoibarren horrenbeste musika talde daudela ikusita, beste zerbait egin nahi izan dugu. Hasieran bagenuen kezka oso estilo desberdinak direlako, rock taldeak daude, baita abesbatzak ere, txaranga... Baina emaitza polita izan da eta hor geratzen den zerbait da”.

- Garbiketa eta segurtasuna: 250
- Muntaketa: 100
- Osasuna: 60
- Koordinazio eta argibideak: 90

**JAN ETA EDANGO DIRENAK**

- 1500 bazkari Ikastolan
- 2.000 oilasko erre
- 18.000 ogi
- 15.000 botila sagardo.
- 12.000 lata garagardo eta 200 barril
- 4.000 lata Coca-Cola eta 500 barril
- Ardoa 6.000 botila
- Ura 2.500 botila haundi eta 16.000 botila txiki

**Gauzak behar bezala ateratzeko elkarlana beharrezkoa izan da.**





**7.000 aparkaleku egokitu dituzte Elgoibarren. Horietariko gehienak Lagunen.**


ZEHATZ s.l.
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 74 26 44 / Faxa: 74 41 69

PREZISIO HANDIKO OSAGAIAK
Punzoiak - trokelak
Moldeak
Neurgailuak
Prezisiozko pieza desberdinak
Forma konplexudun errektifikatuak



FASEG S.A.
FUNDIZIORAKO MODELUAK
egurrean, metalean, erretxinan eta poliestirenoan
Autonomia, 8 - Tel. (943) 74 06 61 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

# Kilometroak 96 jokoa

Kilometroak 96 jokoan hamabost sari banatu ditugu azken hiru asteotan. Sariak 2.000 pta.ko txekeak izan dira, Kilometroak-en dendako artikuluak erosteko. Hona hemen irabazle guztiak.

**1. argazkian:** Jose María Pérez, Anton Mendizabal, Amaia Zubiaurre, Danel Mendibil eta Zuriñe Herrero.

**2. argazkian:** Blanca Badiola, Ainhoa Uriarte, Urko Sanchez, Ainara De Pedro eta Estefani Picón.

**3. argazkian:** Arantxa San Martin, Saioa Eizagirre, Asier Güemez, Jon Sanchez eta Leire Apellaniz.







izquierda unida
ezker batua

Euskararen alde kilometro bat,
urrats bat baino gehiago da.

Denok elkar ulertzeko modu bakarra da.

# ELGOIBAR
# 650 urteko herria

Elgoibar sortu zenetik 650 urte betetzen dira aurten. Elgoibartarrok gure herria hobeto ezagutzeko eta kanpotarrei oinarrizko informazioa emateko baliagarria izan daitekeen erreportaia osatu nahi izan dugu lau orri hauetan, flash modura, hain zuzen. Nolabait esateko, Elgoibarren Nortasun Agiria marraztu nahi izan dugu.

## Datu orokorrak

- **Lurralde historikoa:** Gipuzkoa
- **Eskualdea:** Deba Behea
- **Partidu judiziala:** Bergara
- **Biztanleria**: 11.204
  - Euskaldunak: %62
  - Euskararen kale erabilera: %31

## Ezaugarri geografiko-orografikoak:

- **Mugak:** Iparraldean Mendaro, hegoaldean Soraluze eta Bergara, ekialdean Azkoitia eta mendebaldean Eibar eta Markina.
- **Lur hedadura:** 39,2 kilometro karratu
- **Mendiak:**
  - Atxolin (864 m)
  - Hiru-Kurutzeta (895 m)
  - Karakate-Muneta (742 m)
  - Kalamua (768 m)
  - Morkaiko (520 m)
  - Moru (450 m)
  - Urnobitza (641 m)
- **Ibai nagusia:** Deba ibaia.
- **Errekak:** Sallobente eta San Migel.

## Ezaugarri sozioekonomikoak:

- **Iharduera industrial nagusia:**
  Erreminta makina (%43,3)
  Rodamientoen fabrikazioa (% 9,3)
  Injinerutza mekanikoa (% 7,2)
  Forja eta estanpazioa (%5,9)
- **Enpresa industrial kopurua:** 115 enpresa. 2.205 langile.
- **100 langiletik gorako enpresak:**
  - Danobat (374)
  - Rodisa (201)
  - Alcorta, Unzueta y Cía (130)
  - Etxe-Tar (117)

## Datu historikoak:

- Elgoibarko Hiri Gutuna 1346ko abenduaren 20koa da. Bertokoek "Marquina de Yuso" zeritzon bailaran "Villa" bat sortzeko baimena jaso zuten Alfonso XI.aren eskutik.
- Villamayor de Marquina izena jarri zioten eta Elgoibar zeritzon landan eraiki zen herria.
- 100 urte iraun zituen izenak; azkenean "Elgoibar" toponimoa nagusitu zen.
- Elgoibar herri industriala izan da historikoki. Iharduera industrial nagusia burdinolak izan dira. Ezagunak dira

Elgoibarko Udaletxea Foruen plazan dago. 1737an eraikia.



elgoibartarrek egindako Segoviako eta Burgoseko katedraleetako burdinsareak. Armagintza ere landu izan da eta gaur egun industria hau erreminta makinaren sektorean bilakatu da.

## Udala:

■ **Alkatea:**
Gillermo Garate Urzelai (EAJ-PNV)

■ **Zinegotzi kopurua:** 17

- PNVk 7
- HBk 3
- EAk 3
- PSEk 2
- IU/EBk 1
- PPk 1

**Botu kopurua %tan:**




1996ko martxoko Hauteskunde Orokorrak

■ **Gobernu Batzordearen osaketa:** PNV, EA eta PSOE.

## Ondare historiko-artistikoa:

■ **Udaletxea:** XVIII. mendean eraikia, 1737an amaitu ziren obrak. Udaletxearekin batera plaza barroko ikusgarria osatzen dute elizak, frontoiak eta Udaletxe pareko etxeek.

■ **Elizak:**

**San Bartolome parrokia:** Longa, Larraza eta ibero arkitektuek eraikia XVII eta XVIII. mendeetakoa. 1716an inauguratu zuten, 25 urtetako eraikuntza lanen ostean. Estilo barroko eta neoklasikokoa da.

**Beste eliza batzuk:** Madalako eliza, San Juan Bautista eliza (Altzola), San Migel, San Pedro eta San Rokeko ermitak...

■ **Frontoia:** Plaza Handian dago, Udaletxearen arkuen jarraipen bezala. 1751n eraiki zen lehen frontoia. Gaur egunekoa 1863an egin zuen Laskurain arkitektu bergararrak.



Altzolatarren dorretxea Kultur Etxea da gaur egun. XIV. mendekoa da.

■ **Plaza Handiko etxeak:** Foru enparantzan kokatuak plaza barrokoaren albo bat osatzen dute. Lehenengo etxea 1757koa da.

■ **Txankakua zubia:** Foruen Plazatik Santa Klara kalera doan zubia da. Deba ibaiaren gainean eraikia, berant erdi arokoa.

■ **Jausoro dorretxea:** Gaur egun Erdi aroko arku zorrotza baino ez da geratzen. San Klara kaleko hasieran dago terraza moduko horma batean kokatua.

■ **Altzola Dorretxea** (Kultur Etxea): XIV. mendekoa da. Nafarroa plazan dago, herriaren erdi-







erdian. Altzola familiari dagokion armarria du.

■ **Olasoko kanposantua:** XV. mendekoa. Kanposantuaren ataria, desagertutako Santa Maria eliza gotikoarena da.

■ **Olasoko baserriaren hondakinak:** Olasotarren dorretxea izan zen baserri bihurtu aurretik. 1990an bota zuten, ustez, dorretxearen bi horma zirenen zatiak kontserbatuz.

■ **San Bartolome kaleko etxe barrokoa:** XVII. mendekoa. Bigarren solairuan eta bi balkoien artean armarri handi bat dago, hiru dorreko gaztelu bat duena. Zurezko dekoraziodun teilategala du.

■ **Aita Agirre eskolak:** San Frantzisko komentua zegoen eremuan eraikia. Plaza "Txikia" izenez ezaguna. Bertan egiten dira hilaren amaierako azokak. 1892an amaitu ziren eraikuntza lanak.

## Auzoak eta baserriak:

■ **Auzoak:** Altzola, San Pedro, San Antolin edo Arriaga, San Lorentzo, San Migel, San Roke eta Urruzuno.

■ **Baserriak:** 177 guztira. Altzolan 1, San Pedron 29, San Antolinen 6, San Lorentzon 54, San Roken 18, San Migelen 37 eta Urruzunon 33.

■ **Nekazal azokak:** hilaren azken zapatuetan.

■ **Nekazal azoka garrantzitsuenak:** San Bartolomeetako azoka (abuztuan) eta Gabon Zahar azoka (abenduan).

## Jaiak:

■ San Antonak: urtarrilak 17
■ Día Das Letras Galegas: maiatzean
■ Trinitateak: ekainaren lehen asteburua
■ Altzolako San Juanak: ekainak 24
■ San Pedro bailarako jaiak: ekainak 29
■ Madalako jaiak: uztailak 22
■ San Bartolomeak: abuztuak 24
■ San Lorentzo auzoko jaiak: abuztuak 10
■ San Roke bailarako jaiak: abuztuak 16
■ San Migel bailarakoak: irailak 29

Abuztuaren 24ko San Bartolome jaiak dira Elgoibarko jai nagusiak.




MANCISIDOR HERMANOS, C.B.
Mekanizatuak
Mandrinatuak

Planu bidezko piezen fabrikazioa eta mekanizazioa orokorrean.

☎ 74 30 55
FAX: 74 29 24
ELGOIBAR



IPINTZA
Pinturak

■ Pintura eta paperen salmenta
■ Moketak eta sintasolak jartzen ditugu
■ Zoru eta hormen apaindurak
■ Gortinak saldu eta ipini
■ Gortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Foruen Plaza 4, ELGOIBAR. Tel . 74 04 40



Juan Mugerza Memoriala Nazioarteko kros txapelketa garrantzitsua da.

■ Errosario kaleko jaiak: urriak 9

## Urteko ekitaldirik nabarmenenak:

■ Juan Mugerza Nazioarteko Memoriala. Urtarrilak 5.

■ Nazioarteko Folklore Jaialdia. Uztailaren azken astean.

## Kirol instalakuntzak:

■ Probatokia: San Pedro
■ Mintxetako Udal Kirol Instalakuntza
■ Frontoiak: Altzola, Foruen enparantza, Ikastola, Pilar, Sallobente, San Migel, San Pedro eta Sigma.
■ Olaizaga Udal kiroldegia
■ Udal Tenis pista

## Kultur-guneak:

■ Herriko Antzokia
■ Udal Liburutegia
■ Kultur Etxea

## Bestelakoak:

■ Jubilatuen Etxea
■ San Lazaro egoitza

## Kultur Elkarteak:

■ Guztira: 14
■ Bazkide kopurua: 224

## Euskara:

■ Elgoibarko Izarra K.E.: 628 bazkide
- ATXUTXIAMAIKA Aisialdi Taldea
- GUREAN BAI Euskararen Aldeko Hitzarmena
- BARREN astekaria

■ Euskaltegiak:
AEK: 79 ikasle
Udal Euskaltegia: 120 ikasle

## Gazte Mugimenduak:

■ Egi ■ Gazte Asanblada ■ Jarrai ■ Talde Antimilitarista ■ Zazpiki irratia

## Aisialdi taldeak:

■ Atxutxiamaika Begirale Taldea
■ Zuhaitz Astialdi taldea

## Musika Taldeak:

■ Rock taldeak: Albatross, Ehun Kilo, Kokoteraino, Koska, 6Nemen9, Sexual Perbers, Zigor Gazkez eta Zokoan.

■ Beste batzuk: Elgoibarko Dultzaineroak, Gelatxo, Itxaropena abesbatza, Mauxitxa, Parroki abesbatza, Trikitilari Eskola, Udal Musika Banda eta Udal Txistulari Taldea.

## Kirol elkarteak:

■ Elkarte kopurua: 13

■ Bazkide kopurua: 3.118
Kirol iharduerak: futbola, atletismoa, areto futbola, eskubaloia, saskibaloia, txirrindularitza, judoa, taekwondoa, pilota, espeleologia, mendizaletasuna, igeriketa, karatea, urazpia eta triathloia.

## Hezkuntza:

| IKASTETXEAK | HIZKUNTZ EREDUAK | | |
|---|---|---|---|
| | A (gaztelaniaz) | B (gazt./eusk.) | D (euskaraz) |
| ■ Ikastola | - | - | 530 |
| ■ Herri Eskola | - | 9 | 153 |
| ■ Pilar ikastetxea | - | 199 | 81 |
| ■ Herri Institutua | 129 | 203 | 554 |
| ■ IMH | 170 | - | - |
| ■ Gestio Eskola | 159 | - | - |
| ■ Bide-Egin (Garantia sozialeko moduloak) | 77 | 20 | - |

Kidea
ASESORIA ETA CONSULTING
- Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -
INBERTSIO PROIEKTUAK
Ibaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR

Iraegui
ERROTULAZIO ETA SEINALIZAZIO SISTEMAK
Olaso industrialdea, Olaso kalea 15-55A - 20870 ELGOIBAR
☎ (943) 74 39 52 - 74 3706 Faxa: (943) 74 39 51

## BATA ala BESTEA

# Mari Jose Ulazia

## Kilometroak-eko koordinatzailea



● **Banoa ala banixe?** ◗ Banixe.
● **Zenbat bider egin duzu ibilbidea?** ◗ Dozena bat aldiz.
● **Antolakuntzan eman dituzun ordu bakoitza kilometro bat balitz?** ◗ Mordo bat! 9 hilabete lanean eta egun bakoitzean gitxienez 7 ordu. Atera kontuak!
● **Ametsetako ibilbidea?** ◗ Scheicheles irletara jungo nintzake.
● **Euskaragatik ezezik, beste zeren alde egingo zenituzke kilometroak oinez?** ◗ Pakearen alde.
● **Zein opari egingo zenieke Beder eta Seiri?**
◗ Uste dut Indurainekin ateratako argazkia gustatu zitzaiela.
● **Zer zapalduko zenuke desagertarazi arte?** ◗ Inbidia.
● **Bidea ibiltzen egiten al da?** ◗ Bai, dudarik gabe.
● **Bizitzan bide zuzena jarraitzen duzu ala bidezidorrak nahiago?**
◗ Ahalegina egiten det zuzena hartu eta edozein egoerari aurre egiten.
● **Maitasun kontuetan ibilbide luzeak egin al dituzu?**
◗ Bai, gutxi baina luzeak nahiago asko eta motzak baino.
● **Zure burua publizitatu beharko bazenu?**
◗ Konstantzia azpimarratuko nuke.
● **Eta zer salduko?** ◗ Naizen bezala gustura nago.
● **Kultur munduko zein pertsonai miresten duzu?**
◗ Arantxa Urretabizkaia.
● **Dirua zertarako da?** ◗ Zoriontasuna ematen laguntzen du.
● **Dantzarako musika?**
◗ Ez naiz oso dantzaria baina aukeratzekotan, trikitia edo boleroa.
● **Muntatu zure gustura egokitutako bizimodua.** ◗ Lana eta norberarentzako denbora erdibanatzea, batez ere umearekin egoteko.
● **Zure bizitzako lema?**
◗ Egunean egunekoa egin eta gaurkoa baloratu eta disfrutatu.
● **Zer eman dizu Kilometroak-eko koordinatzaile izateak?**
◗ Aberastasuna, inoiz ikutu gabeko gaiak ikutu ditut, eta jende berri asko ezagutu dut.
● **Eta kendu?** ◗ Denbora eta kiloak, eta noiz edo noiz loa ere.

# KILOMETROAK 96

**DOINUA:**
Frantses euskaldun bat etorri zait

Kilometroek jarrai dezaten
urte oroko karrera,
jende pila bat etorri dadin
seian Elgoibar aldera,
jendeak ondo pasatu dezan
gu saiatu behar gera.
Urrian 6an pauso guztiek
bultza dezaten EUSKERA!

Elgoibartarrok gure partetik
zerbait jarri behar dugu
ta ondorioz beteko dira
ziur pila bat helburu,
bakoitzak berak dakienean
zerbait egiten lagundu.
Festa bikaina izango dela,
horretaz nago seguru.



ION GARATE

AZITAIN
ERRETEGIA- JATETXEA
Berezitasuna BILDOTSA BURDUNTZI ERARA
Azitain auzoa - EIBAR - Tel. 12 18 54

Gelako
ALTZARI DENDA
Gipuzkoa kalea, 13 - Tel. 83 55 22
20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA)

# Zirkuituaz gozatzeko 5 propo




